

Euskal AEko hoteletan aurreko urtean baino % 75,7 ostatu-gau gehiago izan dira, eta % 64,9 sarrera gehiago

2019ko abuztuko sarreraren, ostatu-gauen eta eguneko batez besteko tarifen mailak gainditu dira

Euskal AEko hotel-establezimenduetan 2021eko abuztuan erregistratu diren sarrerek eta ostatu-gauak gora egin dute, eta 357.683 eta 780.730 izan dira, hurrenez hurren, Eustaten datuen arabera. Ostalaritzaren sektorearen suspertzea, 2020ko abuztuarekin alderatuta, % 64,9koa izan da sarreraren kasuan, eta % 75,7koa, ostatu-gauen kasuan. Are gehiago, 2019ko abuztuaren aldean, gainditu egin dira pixka bat zifrak, bai sarreretan (648 sarrera gehiago) bai ostatu-gauetan (+461), Euskal AE osoan; horrek erakusten du sektorea suspertzen ari dela.

Aurreko hilarekin alderatuta, 2021eko uztailarekin, sarrera-kopuruak % 22,4 egin du gora, eta ostatu-gauenak, % 37,3.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak, gaualdiak, batez besteko egonaldia. 2021eko abuztua

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez besteko egonaldia	
	2021/08	m/m-12 (%)	2021/08	m/m-12 (%)	2021/08	2020/08
EUSKAL AE	357.683	64,9	780.730	75,7	2,18	2,05
Estatukoak	246.083	67,8	569.795	80,4	2,32	2,15
Atzeritarrak	111.600	58,8	210.935	64,3	1,89	1,83
ARABA/ÁLAVA	49.516	72,2	98.125	84,8	1,98	1,85
Estatukoak	38.467	76,3	81.360	91,2	2,12	1,95
Atzeritarrak	11.049	59,2	16.765	59,1	1,52	1,52
Vitoria-Gasteiz	35.282	111,3	70.493	120,2	2,00	1,92
BIZKAIA	159.937	93,1	353.108	106,0	2,21	2,07
Estatukoak	112.155	86,4	262.401	102,0	2,34	2,16
Atzeritarrak	47.782	111,0	90.707	118,7	1,90	1,83
Bilbao	105.017	102,2	226.637	125,7	2,16	1,93
GIPUZKOA	148.230	40,6	329.497	49,9	2,22	2,09
Estatukoak	95.461	47,6	226.034	57,6	2,37	2,22
Atzeritarrak	52.769	29,7	103.463	35,4	1,96	1,88
Donostia / San Sebastián	87.988	39,4	201.107	48,8	2,29	2,14

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Araban, 49.516 sarrera eta 98.125 ostatu-gau erregistratu dira abuztuan; alegia, aurreko urteko hil berean baino % 72,2 eta % 84,8 gehiago, hurrenez hurren. Bizkaian, 2021eko abuztuan izan den sarrera-kopurua % 93,1koa izan da, eta, ostatu-gauen kasuan, % 106,0koa; guztira, 159.937 eta 353.108 izan dira, hurrenez hurren. Azkenik, Gipuzkoan, 2021eko abuztuan, 148.230 sarrera eta

329.497 ostatu-gau izan dira; urte arteko igoera % 40,6koa izan da sarreretan eta % 49,9koa, ostatu-gauetan.

2019arekin alderatuta, gairiditu egin dira sarrera eta ostatu-gauen kopuruak bai Araban bai Gipuzkoan; ez, baina, Bizkaian. Araban, 2019ko abuztuan baino 101 sarrera gehiago egon dira, eta 399 ostatu-gau gehiago. Gipuzkoan ere pandemiaren aurreko zifrak gairiditu dira; 13.243 sarrera gehiago eta 11.521 ostatu-gau gehiago aurtengo abuztuan 2019koan baino. Bizkaian, berriz, ez da lortu aurretiko zifretara iristea; 2019ko abuztuan baino 12.696 sarrera gutxiago eta 11.459 ostatu-gau gutxiago erregistratu dira.

Atzerritarren sarrerak 2021eko abuztuan sarrera guztien % 31,2 izan dira; beraz, % 68,8k Estatuan izan dute jatorria. Ostatu-gauen kasuan, antzera, atzerritarrek % 27,0 izan dira, eta Estatuko jatorria dutenak, % 73,0. Atzerritarren sarrerek eta ostatu-gauak gora egin dute aurreko urteko hil berarekin alderatuta (% 58,8 eta % 64,3, hurrenez hurren), baina ez 2019ko ereduari eusteko behar beste; izan ere, orduan, turista atzerritarren sarrerak % 47,9 izan ziren. Suspertzea, beraz, Estatuko jatorria duten turisten hazkuntzan oinarritu da: 2019ko abuztuan baino % 32 gehiago.

Aldeak ikusten dira lurralde historikoen artean. Bizkaian, atzerritarretan izan den hazkuntza, 2020arekin alderatuta, % 111,0koa izan da sarreretan, eta % 118,7koa, ostatu-gauetan. Araban, urte arteko hazkuntza atzerritarren sarrera eta ostatu-gauen kopuruan % 59,2koa eta % 59,1koa izan da, hurrenez hurren. Azkenik, Gipuzkoan, 2020ko abuztuarekin alderatuta izan diren hazkuntzak ez dira hain nabariak izan; % 29,7koa, atzerritarren sarreren kasuan, eta % 35,4koa, ostatu-gauen kasuan.

Euskal AEko hoteletako batez besteko egonaldia, abuztuan, 2,18 egunekoa izan da, 2020ko abuztuko baino pixka bat luzeagoa, orduan 2,05 egunekoa izan baitzen, eta 2019ko abuztukoaren ia berdina (2,19 egun). Estatuko jatorria duten pertsonen batez besteko egonaldia 2,32 egunekoa izan da 2021eko abuztuan, eta, 2020ko hil berean, 2,15 egunekoa izan zen. Eta, atzerritarren kasuan, urte arteko erkaketa eginez gero ikusten da 1,89 egunekoa eta 1,83 egunekoa izan zela, hurrenez hurren.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako betetze-mailak eta errentagarritasuna. 2021eko abuztua

	Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	plazaka		gelaka		ADR (eurotan)		RevPar (eurotan)	
	2021/08	p.p.*	2021/08	p.p.*	2021/08	m/m-12 (%)	2021/08	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	77,0	27,2	82,6	27,3	123,29	34,1	101,77	100,3
ARABA/ÁLAVA	67,9	21,1	79,3	25,7	98,57	43,1	78,16	111,8
Vitoria-Gasteiz	66,2	22,2	80,2	25,9	85,28	48,9	68,36	120,1
BIZKAIA	75,2	33,6	80,0	31,9	98,41	39,5	78,74	131,8
Bilbao	77,3	37,4	79,7	35,1	101,98	42,2	81,32	153,8
GIPUZKOA	82,5	22,5	86,6	22,8	157,89	36,0	136,76	84,6
Donostia / San Sebastián	87,0	23,4	89,5	23,4	190,42	41,8	170,45	91,9

p.p.* = aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

2021eko abuztuan jarduera izan duten ostalaritza-establezimenduetako okupazio-mailak aurreko urtekoak baino handiagoak izan dira, bai plazei dagokienez bai eskainitako logelei dagokienez. Igoera ehuneko 27,2 puntukoa izan da plazen arabeko okupazio-mailan (% 77koa) eta 27,3 puntukoa logelen arabeko okupazio-mailan (% 82,6). Bi kasuetan, 2019ko abuztuko zifretatik hurbil (% 79,6 eta % 84,9, hurrenez hurren), baina, oraindik, pixka bat beherago.

Plazen arabera okupazio-maila % 82,5koa izan da Gipuzkoan; % 75,2koa Bizkaian, eta % 67,9koa Araban. Logelen arabera okupazioa, antzera, % 86,6 igo da Gipuzkoan, % 80 Bizkaian eta, azkenik, % 79,3 Araban.

Abuztuan plazen arabera okupazio-maila handiena izan duen hiriburua Donostia izan da (% 87), ondoren Bilbo (% 77,3) eta, azkenik, Vitoria-Gasteiz (% 66,2). Logelen arabera okupazio-mailaren bilakaera ere handiagoa izan da Donostian (% 89,5), Vitoria-Gasteizen (% 80,2) eta Bilbon (% 79,7) baino.

Sektorearen errentagarritasun-adierazleek goranzko joerari eusten diote. ADRa (eguneko batez besteko tarifa) 123,29 eurokoa izan da abuztuan, aurreko urteko abuztuan baino % 34,1 handiagoa eta, halaber, 2019ko abuztuko baino handiagoa (117,6 euro). ADRaren igoera orokortua izan da lurralde-historikoetan: Gipuzkoan, 157,89 eurokoa (190,42 euro Donostian); Araban, 98,57 eurokoa (85,28 euro Vitoria-Gasteizen), eta, Bizkaian, 98,41 eurokoa (101,98 euro Bilbon).

Okupazio eta tarifa handiagoa egon denez, RevPar-ek (eskuragarri dagoen gelaren arabera diru-sarrera) % 100,3ko urte arteko igoera izan du; 2020ko abuztuan 50,80 eurokoa zen Euskal AE osorako eta, 2021eko abuztuan, 101,77 eurokoa.

Aurreko hilarekin alderatuta, 2021eko uztailarekin, ADRak % 17,6 egin du gora, eta RevPar-ek, % 52,9.

Hileko egun guztietan **itxita egon diren hotel-establezimenduen** ehunekoaren bilakaerak COVID19ari aurre egiteko hartutako neurri murriztaileek hotelen sektorean izan duen inpaktua ahaltzen doala utzi du agerian. 2021eko abuztuan, Euskal AEko hotel-establezimenduen % 10,3 itxita egon da hileko egun guztietan, eta 2020ko abuztuan, % 14,2 egon ziren itxita. 2021eko uztailan ere ehuneko 10,3koa izan zen.

Lurralde historikoaren arabera, Araban hotel-establezimenduen % 13,3 itxita egon da 2021eko abuztuan; Bizkaian, % 10,0, eta, Gipuzkoan, % 9,1.

Informazio-oharra: Hotel-en ETHIren estaldura % **86,3**koa izan da abuztuan. Eustatek eskerrak ematen dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62